



cristina  
enea  
FUNDAZIOA

## SINBIOTIKA, Txaro Marañonen erakusketa berria: Bitztaren gordintasuna gure planetan, izaki sinbionteen bidez

Txaro Marañon (Gasteiz, 1955) artista Donostiara dator bere erakusketa berriarekin, agerikoa izan arren ihesbiderik ematen ez duen errealitate baten konstatazioa erakutsiz, alegia, "gure planetako bitztaren gordintasuna", besteak beste, buztina eta plastikoa nahastuz. **SINBIOTIKA** erakusketak, abenduaren 23an, larunbatarekin, irekiko duenak, erabiltzearen eta botatzearen kulturaren ondorio larriak azpimarratzen dituen bidaia eskaintzen du.



**Donostia, 2023ko abenduaren 20a.-** Txaro Marañon (Gasteiz, 1955) artista Donostiara dator bere erakusketa berriarekin, agerikoa izan arren ihesbiderik ematen ez duen errealitate baten konstatazioa erakutsiz, alegia, "gure planetako bitztaren gordintasuna", besteak beste, buztina eta plastikoa nahastuz. **SINBIOTIKA** erakusketak, abenduaren 23an, larunbatarekin, irekiko duenak, erabiltzearen eta botatzearen kulturaren ondorio larriak azpimarratzen dituen bidaia eskaintzen du.

Txaro Marañonek lau hamarkada baino gehiago daramatza buztina lantzen. Buztinak eta zeramikazko prozesuak adierazteko behar dituen tresna guztiak ematen dizkiotela azaldu du artistak, baina lan askotan material desberdiniek elkarritzetan jarri dituela, hala nola "burdinez edo beste elementu batzuez eginiko objektuak, aurkitutakoak, ohikoak bihurtu dira" bere lanean.

Oraingo honetan, artista gasteitzarrak kontzientzia sortu nahi du gure planetako bitztaren iraunkortasunaren, hondakin plastikoen eta ozeanoetan sortutako plastikozko irlen inguruari. Horretarako, hainbat hondartzatan bildutako plastiko zatiak erabiltzen ditu,

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | [cristinaenea@donostia.eus](mailto:cristinaenea@donostia.eus) | [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus)

Patronoak | Patroons:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



Babesle Iraunkorra | Colaborador permanente:





# cristina enea

FUNDAZIOA

greseko obretan txertatuz eta sinbionteak deiturikoak sortuz. "Pieza hauetan, plastiko zatia piezaren funtsezko zatia izango da, hala nola, itsas zalditxo baten bihotz arrosa, marmoka baten begiak edo manta arraia baten eztena".

Buztina-plastikoa erlazio horretan urrats bat harago joan da: belaki zati txikiak lokatzetan murgildu ditu eta egosi aurretik obran txertatu, "agerian uzteko plastikozko partikula xeheak elikatze-katean nola txertatuta dauden, nahiz eta ez ikusi eta horren jakitun ez izan".

**SINBIOTIKA** 2024ko martxoaren 17ra arte egongo da zabalik Cristina Enean, eta Mandasko duke-dukesen jauregiko hiru aretoak beteko ditu bere mezuarekin. Horretarako, mezu diskurtsibo bat eta hari gidari bakar baten inguruan planifikatutako argumentazio bat jarraituko ditu, prisma desberdinaren bidez erakutsia. Horrela, areto bakoitza bisitariek errealitate desberdin batekin topo egiteko moduan egongo da, baina erakusketa osatzen duen osotasunarekin konektatuta. Ulia aretoak simbionteak hartuko ditu, "buztinetik sortutako itsas-izakiak, plastiko zati bat dutenak", eta horiekin batera ikus-entzunezko instalazioak egongo dira, "plastikoen bilketaren esperientzia hurbiltzen dutenak eta jatorriari buruz interpelatzen gaituztenak (Orio, Zurriola, Asturias, Galizia, Norvegia, Bali...)".

Berrerabiltea da hartu behar dugun premiazko irtenbideetako bat, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko, eta mezu hori hurrengo aretoan dago, Igeldon. Espazio honetan artistak hainbat lan eta instalazio txiki erakusten ditu, "gresaz gain, berrerabilitako beira erabili izana" partekatzen dutenak, eta bide fisiko eta irudikatua egitera eramango gaituena, ur gardenetik ur kutsatura, "ur beltzera".

Azkenik, Santa Klara aretoan, Marañonek "uraren erabateko eskasia, ingurunearen degradazioak eragindakoa, besteak beste sute masiboek eragindakoa" du ardatz.

Azken areto horretan, artista azken hilabeteetan lantzen aritu den obraz gain, tinta eta akuarelan eginiko Sua eman komikiaren original bat ikusi ahal izango da, "Iñaki Marañon marrazkilariaren lankidetza garrantzitsua erakusketa honetarako".

Hala ere, hori ez da **SINBIOTIKA**n dagoen lankidetza bakarra; izan ere, Koldo Mitxelena Kulturuneak eta Astigarragako Recreakult guneak erakusketen erabilitako oinazpikoak lagatzen dituzte, proiektu artistiko-kulturaletan iraunkortasunaren konpromisoaren eta sustapenaren erakusgarri gisa.

**SINBIOTIKA**, egilearen arabera, kasu honetan ingurumen-kontzientzia sustatzeko aliatua da, eta erakusketaren ekarpen nagusia "gure planetako bizitzaren errealtitatea nahiko gordina dela egiaztatzea" dela uste du. Horrela, artea beste tresna bat bihurtzen da, aliatua, agiakzi, herritarren kontzientziak astintzeko.

Erakusketa datorren larunbatean, abenduak 23, irekiko da, publiko orokorrari eta komunikabideei zuzendutako inaugurazio ekitaldi batean, eguerdiko 12:00etan. Bertan, Txaro Marañon autoreak Arnau Moreno i Grau dantzari kataluniarra izango du lagun, eta Reflexions entre Marees koreografia-lana aurkeztuko du, "erakusketa-espazioan obra eta atmosfera ezberdinak interpretatz". Emanaldi honekin, ikuslea **SINBIOTIKA** erakusketa beste angelu batetik ikustera eta sentitzera bultzatzen du dantzariak.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | [cristinaenea@donostia.eus](mailto:cristinaenea@donostia.eus) | [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus)

Patronoak | Patroons:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



Babesle Iraunkorra | Colaborador permanente:





cristina  
enea  
FUNDAZIOA

## SINBIOTIKA, la nueva exposición de Txaro Marañon: La crudeza de la vida en nuestro planeta a través de seres simbiontes

La artista Txaro Marañon (Vitoria-Gasteiz, 1955) acude a San Sebastián con una exposición que muestra la constatación de una realidad, no por evidente eludible, que permite a la autora conectar con la "crudeza de la vida en nuestro planeta", a través de la mezcla de materiales como la arcilla y el plástico, entre otros. **SINBIOTIKA**, que así se llama la muestra que abrirá sus puertas este sábado 23 de diciembre, ofrece un viaje expositivo que subraya las graves consecuencias de la cultura de usar y desechar.



**Donostia / San Sebastián, 20 de diciembre de 2023.**- Txaro Marañon lleva trabajando la arcilla mas de 4 décadas. Asegura que el barro y el proceso cerámico le facilitan todas las herramientas necesarias para expresarse, pero en muchas obras lo ha puesto en diálogo con materiales diferentes, como han podido ser "objetos encontrados de hierro u otros elementos, algo que se ha convertido en habitual" en su trabajo.

En esta ocasión, la artista vitoriana pretende generar conciencia en torno a la sostenibilidad de la vida en nuestro planeta, los desechos plásticos y las islas de plástico formadas en los océanos, para lo cual utiliza trozos de plástico recogidos en distintas playas, incorporándolos a las obras en gres, dando lugar a los llamados simbiontes. "En estas piezas el trozo de plástico incorporado va a ser parte fundamental de la pieza, como el corazón rosa de un caballito de mar, los ojos de una medusa o el agujón de una manta raya".

Un paso mas allá en esa relación arcilla-plástico, ha sido sumergir pequeños trozos de esponja en el barro e integrarlos en la obra antes de la cocción "para evidenciar cómo

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | [cristinaenea@donostia.eus](mailto:cristinaenea@donostia.eus) | [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus)

Patronoak | Patroons:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:





*minúsculas partículas de plástico están ya incorporadas a la cadena alimentaria aunque no se vean y no seamos tan conscientes de ello”.*

**SINBIOTIKA**, que permanecerá abierta en Cristina Enea hasta el 17 de marzo de 2024, llenará con su mensaje los tres salones del palacio de los duques de Mandas, siguiendo un mensaje discursivo y una argumentación planificada en torno a un único hilo conductor, mostrada a través de diferentes prismas. Así, cada sala estará dispuesta de manera que las personas visitantes se topen con una realidad diferente, pero interconectada con el todo que conforma la muestra. La sala Ulia albergará a los simbiontes, “seres marinos creados a partir de la arcilla, los cuales tienen incorporado un trozo de plástico”, y que estarán acompañados por instalaciones audiovisuales que “acercan la experiencia de la recogida de los plásticos y nos interpelan acerca de su procedencia (Orio, Zurriola, Asturias, Galicia, Noruega, Bali...).”

La reutilización se postula como una de las soluciones urgentes que necesitamos adoptar, de cara a minimizar la generación de residuos, y ese mensaje está presente en la siguiente sala, Igeldo. En este espacio la artista muestra una serie de obras y pequeñas instalaciones que tienen en común “el haber usado, además del gres, vidrio reutilizado”, y que nos llevará a recorrer un camino físico y figurado desde el agua transparente al agua contaminada, “al agua negra”.

Por último, en la sala Santa Clara, Marañón se centra en “la escasez total de agua, provocada por la degradación del medio, entre otros motivos por los incendios masivos”.

En esta última sala, además de la obra en la que ha estado trabajando la artista estos últimos meses, se podrá ver un original del cómic *Sua eman* en tinta y acuarela, “una importante colaboración del dibujante Iñaki Marañón para esta exposición”.

Sin embargo, ésta no es la única colaboración que existe en **SINBIOTIKA**, ya que el Koldo Mitxelena Kulturunea y el espacio Recreakult de Astigarraga, ceden las peanas utilizadas en la exposición, como muestra de compromiso y fomento conjunto de la sostenibilidad en los proyectos artístico-culturales.

**SINBIOTIKA**, según su autora, es en este caso una aliada para llegar a fomentar la conciencia ambiental, y cree que la principal aportación de la exposición es “constatar que la realidad de la vida en nuestro planeta es bastante cruda”. Así, el arte se convierte en una herramienta más, en una aliada en realidad, para remover conciencias en la ciudadanía.

La muestra abrirá sus puertas este próximo sábado 23 de diciembre, en un acto de inauguración dirigido al público general y a los medios de comunicación, que tendrá lugar a las 12:00 h. del mediodía, en la que la autora Txaro Marañón estará acompañada por el bailarín catalán Arnau Moreno i Grau, quien presentará su coreografía *Reflexions entre Marees*, “interpretando las diferentes obras y atmósferas en el espacio expositivo”.

Con esta actuación, el bailarín induce al espectador a ver y sentir la exposición **SINBIOTIKA** desde otro ángulo.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patroons:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

